

Etorkizuna eskura



Gehigarri
berezia

HAUR HEZKUNTZA
BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

Hezkuntza Aiaraldean

0-3 urteko familiak "jolas librean" elkartzen dira Urduñan, Gurasolagun ekimenari esker

BERBALAGUNEK "JOLAS LIBREAN" EKIMENA ANTOLATU DU URDUÑAN. ZEHAZTU DUTENEZ, HILERO ERREPIKATUKO DUTE JARDUERA, AZKEN ASTEARTEETAN. APIRILETIK AURRERA PARTE HARTZAILE GUZTIEKIN BATERA ERABAKIKO DUTE JARDUERA KALERA ATERAKO DUTEN ALA EZ.

Testua


Aimar Gutierrez Bidarte

Hilero, azken asteartean elkar-
tzen ari dira 0-3 bitarteko haurrak
'jolas librean' aritzeko Urduñan.
Aiaraldeko Berbalagunak taldeak
sustatu du egitasmoa. Berbalagun
egitasmoak hiriko familia euskal-
dunengana hurbiltzeko helburua-
rekin garatu du 0-3 espazioa, eta ur-
tarrilean jarri zuten martxan taile-
rra. "Egitasmoari esker lortu dugu
hiriko hamabi familia elkartzea eta
giro esukaldun bat sortzea", azaldu
du Aaron Garmendiak, proiektua-
ren koordinatzaileak. Azpimarra-
tu duenez, "ipuinak, material sin-
bolikoa, margoketa..." lantzen di-
tuzte, "musutruk eta euskaraz".

"Egitasmoari
esker lortu dugu
hiriko hamabi
familia elkartzea
eta giro esukaldun
bat sortzea"

Inolako gidaritzarik gabe, norbe-
raren erritmoa errespetatuz gara-
tzen dute ekintza eta, haurrena ez
ezik gurasoen parte hartzea ere bul-
tztatzen dute. Hamabi familia elkar-
tu dira orain arte neguan egindako
tailerretan, baina adierazi dute fa-
milia berriak batzeko atea zabali-
k dituztela.

Urtarriletik apirilera Alondegia
izan da egitasmoaren erreferen-
tziatzeko gunea. Ludoteka mod-
ko bat atondu dute bertan tailerra
eginahalizateko. Udaberriaren eto-
rrerarekin batera, tailerren parte
hartzen duten familia guztien ar-
tean erabakiko dute jarduera pla-
zara atera edota txango desberdi-
nak antolatuko dituzten.



MATXINTXU HAURRESKOLA



Zuk jolasa ikusten duzu.
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu.

MATRIKULA EPEA ZABALIK

APIRILAREN 24TIK MAIATZAREN 16RA

ikasgunea.euskadi.eus

Informazio gehiago behar izanez gero,
haurreskolara etor zaitezke edo telefonoz deitu:
944 049 543

Ardantzazar, 5

laudio.laudio@haurreskolak.eus



Martxoak 8 Orozko Eskolan



Testua

Orozko Harana
ikastetxeko ikasleak

tasun teknikariarekin elkarla-
nean eskolako jolastokian hor-
mirudia margotu da.

Martxoak 8 dela eta, Orozko
Harana Eskolan hainbat ekin-
tza aurrera eramanez dira *Egu-
nero da Martxoak 8* leloarekin,
besteak beste, udaleko berdin-

Horretarako Izaskun Alon-
so Saratxaga sortzaile lau-
dioarraren diseinuan oinarri-
tu gara eta bere laguntzarekin
eskolako ikasle batzuk burutu
dute lana.

Hezkuntza Aiaraldean

2 URTE IGARO DIRA KIRIKIÑO AISIALDI TALDEKO KIDEAK ELLAKURIN DAGOEN ZUHAIZTI BATEAN SARTU ETA ESPAZIOA BERRESKURATU ZUTENETIK. ADIN GUZTIENTZAKO AISIALDIRAKO NATURGUNE BAT ATONDU DUTE

BERTAN, ETA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEKO ASMOA DUTE, LAUDIO INSTITUAREKIN ELKARLANEAN. IRAGAN ASTEBURUAN OSPATU ZUTEN PROIEKTUAREN URTEURRENA.

2 urteko bidea egin du Kirikiñoren Basoak, adin guztietako herritarren aisialdia ardatz

Duela lau urte ekin zion Kirikiñok baratzea atontzeari, Laudioko Udalak Ellakurin dituen udal ortuetako lursailetako batean. Duela bi urte, aldiz, hortik metro eskasetara dagoen zuhaitzian sartu ziren aisialdi taldeko kideak, espazioa atondu eta erabilgarri jartzeko helburuarekin, adin guztientzako naturgune moduan.

'Basoa' izena jarri zioten berreskuratutako gunehorri, eta hainbat jarduera egin dituzte bertan azken asteetan, proiektuaren 2. urteurrena ospatzeko. Iragan larunbatean eman zioten amaiera egitarauari, herri bazkariarekin eta Iruñe Urkixoren kontzertuarekin. Aurreko egunetan bes-

telako ekimenak ere burutu zituzten. Martxoaren 17an, adibidez, Oñatiko Gazte-txeko kideak bertaratu ziren Basora, *Mari* filma aurkeztera.

Etorkizunera begira

Etorkizunera begira, proiektua garatzen eta zabaltzen jarraitzeko asmoa dute Kirikiñoko kideek. Horretarako, elkarlanean ari dira Laudio Institutuko kideekin. Modu horretan, Basoaren parean dagoen Gregorio Marañon Lanbide Heziketa institutuko hainbat azpiegitura eta espazio erabiltzeari ekin diote, eta horrek aukera eman die eta emango die beste hainbat proiektu garatzeko, boulder edota liburutegia kasu.



Iragan asteburuan ospatu zuen Kirikiñok Basoa espazioaren bigarren urteurrena. Aiaraldea.eus



La Milagrosa
Ikastetxea
Laudio

WWW.LAMILAGROSALAUDIO.EUS



MATRIKULA ZABALIK

2 URTEKO GELA DOHAINIK



94 672 07 01



ZUZENDARITZA@LAMILAGROSALAUDIO.EUS

ZATOZ GU EZAGUTZERA!



bihotzetan jarraitzen dugu
LA MILAGROSA IKASTETXEA



Atelierraren metodologia, sormena garatzeko tresna

Atelierraren metodologia aplikatzeari ekin diote Amurrioko Amaurre Ikastetxeko Haur Hezkuntzako zikloetan. Metodologia hau Reggio Emilia Eskolan oinarritzen da.

Esperimentaziorako, manipulaziorako eta ikerketarako prestatutako gunea da honakoa, eta haurrek beren sormena garatzen dute hainbat material eta testura motarekin elkarrengin. Hilabetean behin egiten dute dinamika eta aldiro aldatzen dute Atelierraren gaia; inoiz ez dakite bertan zer aurkituko duten.

Sormena lantzen

Amaurre Ikastetxetik sormenaren garapena erdigunean kokatu nahi izan dute metodologia berri honen aplikazioan: sormenak ezagutzak bereganatzeko prozesua bultzatzen du, pentsamendu kritiko eta abstraktua-

“Oso jarduera aberasgarria da, bai haurrek eta bai helduek gertatzen den guztia behatzen baitute eta gozatu ere egiten dute”

ren garapena bultzatzen baitu, bai eta testuinguru desberdinetan problemak ebazteko gaitasuna ere. Era berean, lidergoa, segurtasuna, parte-hartzea eta bikoteekiko integrazioa sustatzen ditu.

“Oso jarduera aberasgarria da, bai haurrek eta bai helduek, gertatzen den guztia behatzen baitute eta gozatu ere egiten dute”, adierazi dute ikastetxeko irakasleek. Sormena haurtzarotik bertatik sartzeari garrantzitsua da, haur guztiek ekartzen dituzten baliabideak aprobetxatzen dituelako, garapen integrala ahalbidetzen duelako, pertzepzioak baliozkotzen dituelako eta haurrari segurtasuna ematen diolako. Garapenaren hasierako etapetan. “Atelierrek ikasketak sentsoriala ingurunearekin kontaktuan mantentzea ahalbidetzen digu, eta berdinak segurtasun-esparru baten barruan”.

HEZKUNTZAREN BIDAIA GUREKIN HASI NAHI?

GURE ATEAK
BETI ZABALIK,

AMAURRE IKASTETXEA
Dionisio Aldama, 16
01470 Amurrio
Araba

www.amaurre.eu
info@amaurre.eu
Tfno. 945 393 544



AMAURRE
Txiki

KRISTAU ESKOLA

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako matrikulazio epea zabalik Aiaraldean

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iragan martxoaren 27an zabaldu zuen Batxilergoan matrikulatzeko epea eta apirilaren 8ra arte zabalik egongo da. Ikastetxe publiko zein pribatuetan matrikulazio epea berdina da. Aurreko urtetan bezala bide egongo dira: aurrez aurreko matrikulazioa edo Internet bidezkoa. Bigarrenetik jotzen duten ikasleek Hezkuntza Sailaren web orriari aurkituko dute hori egiteko bidea. Behin matrikulazio epea amaituta, maiatzaren 3an aurkeztu-

Hezkuntza eskaintza zabala aurkituko dute ikasle eta familiek Aiaraldean, zentro publiko zein itunpekoetan.

ko dira behin-behineko zerrendak eta maiatzaren 10a baino lehenago aurkeztu ahalko dira erreklamazioak. Behin betiko zerrendak maiatzaren 24an egingo dituzte publiko. Behin hori eginda, ohiko matrikulazio-aldia abiatuko du Hezkuntza Sailak. Aurtengoa ekainaren 19tik uztailaren 4ra luzatuko da, biak barne.

Lanbide heziketako zentroetan matrikulatzeko epea maiatzean abiatuko dute.

Ohikoan bezala, hezkuntza eskaintza zabala aurkituko dute ikasle eta familiek Aiaraldean, zentro publiko zein itunpekoetan.



Tipi-Tapa

Errespetua
Mugimendu librea
Jarduera autonomoa
Denbora
Presentzia
Emozioak
Konfiantza
Segurtasuna
Kalitatezko zaintzak



Zer eskaintzen dugu?

Neurrirako harrera garaia eta banakako arreta, kalitatezko zaintzak, mugimendu askea eta jolas librea eskaintzen ditugu Tipi-Tapa haur eskolan

400 ikasle eta irakasle ohi elkartu nahi dituzte Latorro Ikastetxeko 50. urteurrenean



Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

50 urte beteko ditu aurten Latorro ikastetxeak. Ibilbide luze hori ospatzeko urteurren festa antolatu dute maiatzaren 20rako. Egun horretan hainbat ekintza egingo dituzte, horien artean ikasle eta irakasle ohiak batuko dituen herri bazkaria. Guztira, 400 lagun elkartu nahi dituzte Kamaraka kalean egingo duten bazkarian.

Ekintza gehiago

Bazkaria ez da izango urteurren ospatzeko antolatuko duten ekintza bakarra. Ostiral honetan, esaterako, txokolata jana eta egurrezko jolasak prestatuko dituzte Aldai Plazan, 17.30etatik aurrera. Es-

kolako irudia ere berritu dute 50. urteurrenaren testuinguruan. "Irudi berri honekin, aurrera doan eskolaren irudia izan nahi dugu, aurrerakoa, dinamikoa. Etorkizunari begira, horixe baita gure helburua; umeak, gazteak heztea, horiek izango dira gero gure etorkizuneko ikasleen gurasoak", azaldu dute ikastetxeko kideek. "Auzokoa herrikoa! lemak hori adierazten baitu, hainbat eta hainbat familia eta belaunaldi pasatu direla gure eskolatik, eta horren oroimena izan dezatela!" Azkenik, argazki zaharren erakusketa ere prestatzen ari dira. Horretarako herritarren laguntza eskatu dute; Latorroko web orriaren bidez bidali daitezke irudiak.

TIPI TAPA
HAURRESKOLA AMURRIO



Arenaldé kalea, 5 AMURRIO
945 89 32 59

HAURRA ETA FAMILIA

Zer eskaintzen dugu?

- 0-2 urte
- Kalitatezko zaintzak
- Mugimendu askea
- Jolas librea
- Material eta espazio egokiak

Matrikulazio epea:

Apirilaren 24tik maiatzaren 16ra
(IRAILEAN HASTEKO)

ATE IREKIAK
Apirilaren 18an
16:30 - 18:30



Laudio Ikastola

Haur Hezkuntzan begirada fisiopediatrikoa txertatzeari ekin diote Laudio Ikastolan



Laudio Ikastolako Haur Hezkuntzan urteak daramatzate mugimendu askearen bidea jorratzen. Haurrari garapen motorearen prozesua bere kabuz egiten uztean datza proposamen hori, horretarako azpiegitura eta espazio egokiak atonduta. "Zuk inguru egokia ahalbidetzen badiozu umeari, berak bere kabuz egingo du garapen prozesua", ziurtatu du Izaskun Burdain irakasleak.

Baina orain "ezagutza maila berri bat" txertatzeari ekin diote 0-3 urteko geletan: "Begurada fisiopediatrikoa". Formazioa jaso dute horretarako, Urduñako Esti Ginea fisiopediatraren eskutik. Modu horretan, orain arte topatutako hainbat arazo eta oztoporri egin ahalko diete aurre. "Ikusten genuen garapen motore horretan ume batzuk zailtasun edo blokeo batzuk zituztela", azaldu du Burdainek. "Guk denbora ematen genuen, pentsatzen denbora kontua zela. Baina, Estirekin hitz eginda, jakin izan dugu topatutako zailta-

sun askok zerikusi handia dutela haurdunaldian, erditzean edota bizitzaren lehen egunetan gertatutako kontuekin. Izan ere, erditze konplikatu batek kontrakturak sortu ahal ditu umean".

Zailtasun horiek "ahalik eta lasterren" konpontzea funtsezkoa dela uste dute Haur Hezkuntzako irakasleek, bestela ondorioak izan ditzazketelako hurrengo ikasketa faseetan. "Badirudi katuka egite-rakoan zailtasunak edo bi aldeetara buelta ez ematea bezalako arazoak desagertu egiten direla haurra hurrengo fasera igarotzean, baina atentzio gabezia edota hiperaktibitatea bezalako fenomenoak sortu ditzazkete etorkizunean. Gauza txikiak dira, ez dira larriak, baina larriagotu daitezke urteen poderioz. Gero eta beranduago egin, orduan eta zailagoa izango da bideratzea". Horregatik, fisiopediatren funtzioa go-raipatu du Burdainek: "Haurrak fisiopediatretatik igaro beharko lirarteke pediatretatik igarotzen

diren bezala, jaiotze eta hurrengo hilabeteetan, dena ondo dagoela detektatzeko". "Adi egoten gara, eta umea garapen prozesuaren punturen batean tratatzen dela ikusten badugu gurasoekin lan-tzen dugu gaia".

Gurasoen iritzia

Guraso ugari egin dute bat Laudio Ikastolak haurrentzat planteatzen duen hezkuntza eredu berritzailearekin. Julen Castilok, adibidez, mugimendu askearen onurak nabarmendu ditu: "Badirudi horri esker umeak ikasi duela egunerokotasunak jartzen dizkion erronkak kudeatzen. Bere garapen prozesuaren protagonista bilakatu da".

Naiara Pikazak ere lehen unetik izan zuen argi mugimendu askea zela bere alabarentzako nahi zuen hezkuntza mota. "Haurrei espazio egokiak eskainiz gero, beren ingurua esploratzeko aukera ematen zaie, eta dituzten gaitasunak garatzeko".



Naiara Pikaza

Gurasoa

"Berehala konturatu ginen gure alabarentzako nahi genuen hezkuntza zela"



Izaskun Burdain

Irakaslea

"Begurada fisiopediatrikoak ate berri ugari ireki dizkigu gauza berri pilo batera"



Julen Castillo

Gurasoa

"Mugimendu askeari esker, bere garapen prozesuaren protagonista bilakatu da umea"

IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

ikastola

2021ean eta 2022an
jaiotakoentzat



“Ditugun pribilegioez jabetzeko balioko digu Saharara egingo dugun bidaiak”

SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPALEKUETARA BIDAIATUKO DUTE LAUDIO IKASTOLAKO BATXILERGO 2. MAILAKO 16 IKASLEK LARUNBAT HONETAN. ESMARA ELKARTASUN PROIEKTUA GARATUKO DUTE BERTAN.

Hemendik hiru egun eskasera zoazte Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara. Nola zaudete?

Urduri. Badakigu inoiz ahaztuko ez dugun esperientzia izango dela. Badakigu gogorra izango dela, baina balioko digu konturatzeko oso ondo bizi garela. Guk marka zehatzetako arropa nahi dugu. Errefuxiatuen kanpalekuetan daudenentzat, aldiz, arropa apur bat izatea jada sekulakoa da. Ditugun pribilegioez jabetzeko balioko digu bidaiak.

Nola sortu zen proiektua?

Laudio Ikastolak antzeko proiektu bat garatu zuen 2009-2010. urteetan, baina gero ez zuen jarraipenik izan. Gu ikasbidairik gabe geratu ginen, COVID-19aren pandemia zela eta, eta bidaia bat egiteko gogoekin geratu ginen. Iazko apirilean Jon Bengoetxeak (Ikastolako zuzendariak) proposatu zigun proiektu hau berpiztea, eta animatu ginen.

Nora zoazte zehazki eta zer egingo duzue?

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetara goaz, Argeliara, Marokok okupatutako lurretatik kanpo 47 urte bizitzen daramaten sahararregana. Zehazki, Bucraa herrian egongo gara, Aaiunen, Laudio herri horrekin senidetuta dagoelako.

Bertako familiekin biziko gara, lauzpabost pertsonako taldeetan banatuta. Horrek aukera

emango digu bertako errealitatea eta bizimodua lehen eskutik ezagutzeko.

Goiz eta arratsaldetan, aldiz, proiektua garatzen egongo gara. Ortu bat atonduko dugu eguneko egoitza batean eta azpiegiturak hobetzen lagunduko dugu, paretak margotuz, besteak beste.

Hori bakarrik ez, Bucraa herriko beste azpiegitura batzuk bisitatzeko aukera ere izango dugu: eskola edota botika, besteak beste. Kanpamenduetako beste azpiegitura batzuk ere bisitatuko ditugu, museoa kasu, bertako errealitatea hobeto ulertu eta ezagutzeko.

Nolakoa izan da bidaiaren antolaketaketa?

Iazko apirilean hasi ginen proiektuarekin. Egin genuen lehen ekitaldi handia Ikastolako jaikoa izan zen. Postu bat jarri genuen kamiseta eta poltsoekin eta saski batzuk zozkatu ginituen.

Udan zehar postuak jarri ginituen inguruko herrietako azoketan. Tonbolak ere egin ditugu, eta azaroan Esmara Eguna antolatu genuen Faktorian, kontzertuekin eta DJ emanaldiekin. Bukatzeko, abesti bat eta bideoklipa plazaratu ditugu, proiektua jende gehiagorengana heltzeko eta diru bilketa egiteko.

Ez da erraza izan, baina sekulako ikaskuntza prozesua izaten ari da. Hasiera batean 2022ko abenduan joatekoak ginen, gero



Aste Santura pasatu zuten bidaia eta azken egunetan hainbat gorabehera egon dira. Madrildik joango gara azkenean.

Produktuen bilketa ere egin duzue.

Bai, postuak jarri ditugunean

neguko bigarren eskuko arropa jaso dugu. Arropa hori saldu egin dugu gero, dirua lortzeko, eta saldu ez dugunetik egoera onean dauden jantziak hautatu ditugu, bertara eramateko. Horrez gain, botikak eta bertan topatu ezin dituzten beste hain-

bat produktu ere eramango ditugu. Pisu muga dugu, baina ahalik eta gauza gehien eramaten saiatuko gara.

Horregatik, ekarpena egiteko deia luzatu nahi diogu saharar herria gure bitartez lagundu nahi duen orori.



Zatoz gure Ikastola ezagutzera!

94 672 67 37

matrikula@laudioikastola.eus



Zaraobe

“Zaraoberen eskaintza oso oso zabala da, eta kabida eman nahi diegu ikasle guztiei”



IÑIGO LOPEZ DE SANTIAGO ZARAIBE INSTITUTUKO ZUZENDARI BERRIA IZANGO DA UZTAILETIK AURRERA. IKASTETXEAREN ERRONKA NAGUSIEN INGURUAN MINTZATU DA: METODOLOGIA BERRIAK TXERTATZEA, INKLUSIBITATEA EDOTA IKASLEEN INTERNAZIONALIZAZIOAN SAKONTZEA, BESTEAK BESTE.

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako matrikulazio kanpaina abiatzeaz da. Zein da Zaraibe Institutuak mahaigainean jarriko duen eskaintza?

Lanbide Heziketan azken urteetako eskaintzarekin jarraituko dugu. Gizarteratzea goi mailako zikloko lehenengo promozioak aurten amaituko du, eta ziklo hori indartzen jarraitu nahi dugu. Oso arrakastatsua izan da lehenengo promozio hau. Alde batetik, ikasleen harreragatik; 25 ikasle matrikulatu dira, topera egon da. Baina, baita ere, eta niretzat oso garrantzitsua da hau, ikastetxeari eman dion giroagatik; ikasle eta irakasleen profiletatik dinamika oso interesgarriak sortu dituzte institutuan, eta giroa aparta izan da.

Mekatronika goi mailako zikloa ere eskainiko dugu, industriara zuzendua. Erdi mailako zikloetan, aldiz, mekanizatua eta mantentze elektromekanikoa eskainiko ditugu arlo industriari begira; baita behar bereziak dituzten pertsonentzako arreta zikloare. Bi adar sortzen ditugu horrela erdi mailako zikloetatik goi mailako zikloetara doazenak.

Oinarrizko Lanbide Heziketan aurten oso talde ona izan dugu Zurgintza eta altzairugintza zikloan. Datorren urterako planteatu zaigu mekanizazioan ziklo berri bat irekitzea, maila honetan. Hezkuntza Lege Berriarekin oinarrizko lanbide heziketako ikasleek DBHko titulua ere eskuratzen dute. Hori abantaila bat da Lanbide Heziketarako. Beste ikasketa batzuekin alderatuta (EPA bat esaterako) Bigarren hezkuntzako titulua ez ezik profesionalizazio maila bat ere eskuratzen baitu ikasleak. Hezkuntza Saitetik Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak bultzatu nahi ditu, hori helarazi digute.

Batxilergo arloan, eskaintza berritzen jarraituko duzue.

Batxilergo Zinetifiko-Teknoligoari eta Gizarte Batxilergoari Batxilergo Orokorra izeneko adarra eskaini genuen iaz lehenengo aldiz. Batxilergo Orokorra erdi bideko eredu misto bat da, Goi Mailako Lanbide Heziketara begira dagoena. Hastapenetan gaude oraindik, Aiaraldean gu gara Batxilergo mota hau eskaintzen duen zentro bakarra.

Aurten ikasgai berriak gehituko ditugu, orain arte eskaini ez direnak. Batxilergoko lehenengo mailan Zuzenbidea eta Antropologia-soziala eskainiko ditugu. Irakasgai berriak izango dira, ikasleen erantzunaren zain gaude, ea eskaintza gogoko duten.

Zaraibe Institutuak harreman estua mantentzen du Amurrioko eta Aiaraldeko ehun sozial eta ekonomikoarekin.

Eskualdeko sektore askorentzat erreferente gara, eta horretan jartzen dugu gure ahalegina. Eta guk inguruarekin ahalik eta harreman estuena izaten saiatzen gara: eskualdeko ikastetxeekin, udalekin, enplegu-zerbitzuekin, enprekin... Gure esparruak dena hartzen du.

Eskualdetik haratago ere, kanpoko harremanak asko zaintzen ditugu Zaraoben. Europako hainbat ikastetxerekin elkarlanean aritzen gara. Erasmus programaren bidez, esaterako, ikasle eta irakasle asko bidaltzen ditugu atzerrira. Une honetan Frantziako lau ikasle ditugu Aldundiko egoitzetan lan egiten, Dinamarkako ikasleak izan ditugu duela gutxira arte. DBHko ikasleak Frantziako Lezignan herriko Ernest Ferroul ikastetxean izan dira berriki.

Proiektu ugari garatu dituzte ikasleekin. Horieta berriz zerrendatuko?

Teknologia aldetik bi proiektu interesgarri ditugu eskuartean. Bat da mekanizazio taileraktai-

ler inteligente bihurtzeko prozesua da; ikerketak eta eguneraketak egin ditugu aldaketa hori gauzatzeko.

Bestalde, hastapenetan gaude oraindik, baina oso proiektu erakargarri eta polita da ikastetxean daukagun pisu batean garatzen ari garen etxebizitza inteligente eta domotizatu bat sortzeko prozesua. Behar bereziak dituzten pertsonentzako etxebizitza da honakoa. Espazioa ikasleentzako laborategi gisa irudikatzen dugu, non ikastetxean ditugun goi mailako bi espezialitateek bat egingo duten.

Zeintzuk dira datozen urteetarako esku artean dituzuen erronka nagusiak?

Esango nuke erronka nagusia eraldaketa metodologikoan sakontzea dela: intermodularki lan egitea, konpetentziak lantzea... DBH eta Batxilergoan ekin behar diogu horri bereziki, hezkuntza mailan legedian planteatzen diren eraldaketa hauei aurre hartzen.

Guztionezko ikastetxe bat izatea nahi dugu. Zaraoberen eskaintza oso zabala da, eta kabida eman nahi diegu ikasle guztiei. Uste dut hezkuntza sistema ikasleentzako egokitu behar dela.

Ikastetxearen internalizazioan sakontzen jarraituko dugu ere. Lanbide Heziketan nahiko garatua dugu alor hau, eta ehundik gora ikasle joan dira atzerrira ikastera. Orain, batez ere gus-tatuko litzaiguke Erasmus programa Batxilergoan eta DBHn gehiago zabaltzea. Zaraobeko filosofia beti izan da atzerrira joan nahi izan duen eta merezi duen ikasle orori aukera hori eskaintzea. Horretarako, gure proiektu propioak garatu ditugu.

Datorren ikasturterako Polonia, Frantzia, Alemania eta Belgikako ikastetxeekin gaude harremanetan ikasle eta irakasleen mugikortasun programak garatzeko.



LANBIDE HEZIKETA

IZEN EMATEA Maiatzaren 8tik 26ra

- Eredu eleanitza goi mailako zikloan
- Metodologia aktiboak, erronketan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA ziklo industrialetan
- Erasmus programa



OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



ZURGINTZA



ELEMENTU MEKANIKOEN
FABRIKAZIOA (D EREDUAN)

ERDI MAILAKO ZIKLOAK



MANTENTZE - LAN
ELEKTROMEKANIKOA



MENDEKOTASUN
EGOERAN DAUDEN
PERTSONEI ARRETA



MEKANIZAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK



MEKATRONIKA
INDUSTRIALA



GIZARTE
INTEGRAZIOA

BATXILERGOA

AURREMATRIKULAZIOA ETA ONARPEN FASEA Martxoaren 27tik apirilaren 21era

- D eredu
- Banakako orientazio akademiko profesionala
- Informazio eta komunikazio teknologiak eskura
- Goimailako emaitzak



GIZA ETA GIZARTE
ZIENTZIAK



ZIENTZIAK



OROKORRA

Etxebarriaur kalea, 6 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.net



@zaraobeinsti

Laudio Institutua

“Nire institutuko garaia erlatiboki laburra baina oparoa izan da, bai eskuratutako ikasketen eta ezagututako pertsonen aldetik”

MIREN CUESTA HUERTA (LAUDIO, 2003) BIOKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARREKO GRADUA IKASTEN ARI DA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN. LAUDIO INSTITUTUKO IKASLE OHIA DA, ETA BERTAN BIZITAKO ESPERIENTZIAREN INGURUAN MINTZATU DA.

Zer ikasi duzu eta zergatik aukeratu zenuen arlo hori?

Oraintxe Biokimika eta Biologia Molekularreko gradua ikasten ari naiz EHU (Leioa). Nire ustez, txikitatik hasi nintzen zientziarekiko zaletasuna garatzen. Familiatik eta ikastetxetik orientazioa jaso banuen ere, neure kabuz informatzen hasi nintzen. Modu horretara, ikerketa munduak erakartzen ninduela konturatu nintzen. Gradu honek eskaintzen duen ikerketa espektro zabala dela eta, azkenean biokimikari aukera bat ematea erabaki nuen.

Institutuko garian bizitako esperientzietatik, zein da gehien baloratzen duzuna? Zergatik?

Zaila da aspektu bakarra azpimarratzea, azken batean batxilergoko garaia bizitzako etapa bat izan delako. Nire institutuko garaia erlatiboki laburra baina oparoa izan da, bai eskuratutako ikasketen eta ezagututako pertsonen aldetik. Etapa honen zati bat oso pertsonala bada ere, kolektiboa den zati inherente bat dauka. Askok antzeko egoeratik igarotzen ari gara baina bako-

tzaren ikuspegia oso ezberdina izan daiteke, eta hori oso aberasgarria da.

Esperientzia edo ikasketa horiek, zure ustez, oinarri egokiak izan dira unibertsitateko ikasketak aurrera eramateko?

Unibertsitateko lehenengo urtean zientziaren adarreko oinarriko ikasgai ugari eduki nituen, eta institututik jasotako ezagutzak hasieran oso erabilgarriak egin zitzaizkidan. Hala ere, laborategiko praktikak izaten hasi nintzen, eta aurreko esperientzia oso eskasa zela konturatu nintzen. Ikaskeztez gain, unibertsitatea ingurune berria da, eta graduoko lagun berriak egitea eta unibertsitateak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatzea ikasketak aurrera eramateko baliagarriak izan zaizkit.

Alde handia sumatu zenuen institututik fakultatera pasatzean? Zergatik?

Ikuspegi akademiko batekin, aldaketa nabaritu nuen, bai edukien sakontasunean bai materia kantitatean ere. Azterketa gehienak hilabete batean kontzentratzen da

eta momentu horietan presio nabarmena da. Irakasleekiko tratua ere aldatzen da, gero eta independentzia maila handiagoa lotzen dugu. Hasiera batean kezka garria dirudien arren, horrelako egoerek norberaren burua beste maila batean ezagutzea ahalbidetzen dute.

Zeintzuk dira zure asmoak lan munduari begira?

Egia da hasierako asmoa mantentzen dudala oraindik; baina denborak aurrera egin eta gehiago ikasi ahala, 'ikerketa' hitza orokorreki dela konturatu naiz. Gero eta arlo gehiago ezagutzen ditudan heinean, "espezializazio" hitza are gazi-gozoagoa egiten zait, arlo ugari erakargarriak egiten zaizkidalako. Hori dela eta, baliteke gradua amaitu ostean master batean sartzea, baina nire ikasketekin jarraitzea ere aukera bideragarri bezala ikusten dut.

Zein aholku emango zenieke orain batxilergoa ikasten daudenei edo ikasiko dutenei?

Batxilergoan daudenek edo bertan ikasiko dutenek badakite momenturen ba-



“Nire ustez oso garrantzitsua da nork bere burua informatzea. Intereseko arloan dauden pertsonengana edo unibertsitate azoketara joz”

tean erabaki bat hartu behar izango dutela. Beraz, erabaki hori benetan beraien interes pertsonalekin bat etortzea gomendatzen diet. Normala da idea argirik ez edukitzea edo notak mugarriz izan daitezkeela pentsatzea; dena den, azkenengo helburura heltzeko uste diren baino bide eta aukera gehiago daude. Nire ustez oso garrantzitsua da nork bere burua informatzea, zure intereseko arloan dauden pertsonengana edo unibertsitate azoketara joz.

LAUDIO
BHI
.eus

2023-2024 AURREMATRIKULA

Martxoak 27 - apirilak 21 (ONLINE EDO IKASTETXEAN)



BATXILERGOAK

- > Zientzia eta Teknologia
- > Giza eta gizarte zientziak
- > Arte plastikoak

ERDI MAILAKO ZIKLOA: Estetika eta edergintza
OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA: Ileapainketa

**Helmuga
euskarri
ibilbidea
helburu!**

Hezkuntza Aiaraldean



V. Filosofia Olinpiadan izan ziren Aiaraldeko ikasleak

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Eibarren ospatutako Euskadiko V. Filosofia Olinpiadako sari banaketan egon ziren Laudio BHIko eta Zaraobe Institutuko ikasleak iragan martxoaren 24an. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 400 lan filosofikoren artean Eibarko Armeria Eskolan euren lana defendatu behar zuten finalistak hautatu zituzten; modalitate bakoitzeko (marrazketa, argazkia, bideoa, dilema morala eta disertazioa) hamar finalista guztira.

Laudio Institutuak modalitate guztietan izan ditu finalistak, eta Zaraobe Institutuak hiru modalitatetan. Irabazleek Euskadi ordezkatzeko dute apirilaren 28an eta 29an Tenerifan egingo duten Estatu mailako finalean.

Mugak eta justizia globala

Aurtengo gaia 'Mugak eta justizia globala' izan dute Filosofia Olinpiadan parte hartu duten DBHko eta Batxilergoko ikasleek. "Ikasleak oso inplikaturik egon dira. Bigarren ebaluazio guztia eman dugu filosofia ikasgaiaren balio etikoake ta pentsamendu kritikoa lantzen. Aurtengo gaiak, 'Mugak eta justizia globala', aukera eman digu aporofobia, etnozentrismoa, arrazakeria, xenofobia edota migrazioa bezalako gaien inguruan hausnartzeko" azaldu dute Laudio Institutuko filosofia irakasleek. Oso pozik azaldu da irakasle taldea ikasleek erakutsitako mailarekin: "Oso prestatuta joan dira Filosofia Olinpiadara eta maila altua erakutsi dute".

Dilema moralaren modalitatean Patience Idemudia Laudio

BHIko ikaslea izan zen irabazlea. Ikastetxe berdineko Sakila Abdelmadjidek bigarren postua lortu zuen modalitate horretan ere. "Poz handia izan genuen ikastetxeko bi ikasle oholtza gainean ikusi genituenean euren lana defendatzen", azaldu dute filosofia irakasleek. Lehenengo postua lortuta, Tenerifeko Adejen herrian izango da Idemudia datorren apirilaren 28an, Espainiako Estatuko Filosofia Olinpiadan Euskadi ordezkatzeko.

Laudio BHIko ikasleek garaipe gehiago lortu zituzten Eibarren: Argazkilaritza filosofikoan DBH 3. mailako Maider Vallek, bigarren postua lortu zuen, batxilergo mailako ikasleekin lehia. Horrez gain, UEUK euskarazko aurkezpenik onenari eskainitako Laratz saria ere eskuratu zuen.

Aintzinako Andra Maria

Urduñan errotutako, hezkuntza inklusiboa, hurbila, irekia eta kalitatezkoa eskaintzen du Aintzinako Andra Maria ikastetxeak

Urduñako Aintzinako Andra Mariaren Ikastetxeak heziketa eskaintza zabala jartzen du mahaigainean, pertsonaren prestakuntzaren etapa guztiak barne hartze dituen: Haur Hezkuntza, dohainik eta D ereduaren aldeko apustua nabarmentzen da. Lehen Hezkuntza, Biga-

rren Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Batxilergoa, (Zientzia eta Teknologia eta Humanitate eta Gizarte Zientzien aukerarekin) eta Lanbide Heziketa. "Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko Teknikariaren Lanbide Heziketako Goi Mailako LHko plan berriak esaten

duenez, trantsizio digitalaren barruan, Europa Digital 2021-2027 programajasetzen duela helburu honekin definitu da: "EBren eta industriaren inbertsioak bultzatzea, ekonomiaren, industriaren eta gizartearen eraldaketa digitala babestea eta, horrela, lehiakortasuna hobetzea eten digita-

la eta EBren autonomia estrategikoa indartuz. Programa honela egituratzen da: bi jarduera mota nagusien inguruan: garapena eta oinarriko gaitasunak eta teknologien hedapena eta erabilera hobea digitalakekonomia eta gizar-

te osoan. Zikloarekin gure erronka berria izango da".

Josefinos-en errealitate berrietara egokitzen gara eta Ikasleen ongizate pertsonala lantzen dugu, beren prozesuan lagunduz etagidatuz, entzutean eta errespetuan oinarrituta, beren bizi-proiektua eraiki dezaten".



MATRIKULA ZABALIK
MARTXOAREN 27TIK
APIRILAREN 21ERA

INFORMAZIOA:
orientacion@colegiojosefinos.com

945 384 830

AINTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA



Aukerak sortzen

> HAUR HEZKUNTZA
D EREDUAN eta DOHAINIK

> LEHEN HEZKUNTZA

> DBH

> BATXILERGOA

> LH INFORMATIKAKO GOI
MAILAKO ZIKLOA

Antzinako Aplikazioak
Garatzeko Teknikaria

ATE IREKIAK





Oinarrizko lanbide heziketa

Soldadura

Erdi mailako heziketa zikloak

Administrazio-kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

Mantentze-lan Elektromekanikoa

Mekanizazioa

Soldadura eta Galdaragintza

Mikroinformatika sistemak eta sareak (BERRIA!)

Batxilergoa (euskaraz eta gaztelaniaz)

Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

2.maila soilik

Goi mailako heziketa zikloak

Zuzendaritzari laguntza ematea *2.maila soilik*

Administrazioa eta Finantzak

Sistema Elektromekanikoak eta
Automatizatuak

Automatizazio eta Robotika
Industrialak

Mekatronika Industrialak

Fabrikazio mekanikoko

Produkzioaren Programatzea

Fabrikazio mekanikoko diseinua (BERRIA!)

Mantentze-lan elektronikoa (BERRIA!)

Espezializazio ikastaroak

Fabrikazio adimentsua

Eragiketa-teknologiaren inguruneetan
zibersegurtasuna



BATXILERGO AURREMATRIKULA EPEA:

Aurrematricula presentziala: martxoaren 27tik apirilaren 21era bitartekoa izango da.
Eskabideak on line aurkeztu ahal izango dira martxoaren 27tik aurrera

Formato digitalean bakarrik; <http://www.euskadi.eus/admision-y-matriculacion-bachillerato/web01-a2hikast/es/>

LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULA EPEA:

Laster gure webgunean azalduko dira

Karmen kalea 17, **LAUDIO** (Araba)

Tel: 946 72 05 05 secretaria@laudioalde.eus www.laudioalde.eus